

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta hirian usain txarrak izatearen gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu behar dio Udalbatzari, osoko bileran eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urtarrilaren erdialdean, izugarritzko usain txarra zela esnatu zen Donostia. Batez ere Martutenen, Amaran, Grosen edo Erdialdean zen usain txarra.

Iazko abenduan ere jaso genituen auzotar batzuen kexak, usain txarra zela eta. Alkateak erantzun zigun, akaso, Ibaetako ponpaketa estaziotik (Añarbeko Urak) eta sektore hartan bultzada hori desbideratzeko egiten ari diren lanetatik etorriko zela usaina, eta lan hori egindakoa hobetuko zela espero dutela.

2021eko maiatzean ere idatziz galdetu genion alkateari usain txarra zela eta, eta Hernaniko paper-fabrika batetik zetorrela esan zigun orduan, 2013an egindako azterlan baten arabera.

Donostiako usain txarrei buruzko azterlan bat da 2013ko hori, eta hiru isurtze-foku detektatu zituen. Bat, San Markoko zabortegia. Errenterian dago, hondakin tona mordoa lurperatzen zen han lehen eta izugarritzko usain txarra botatzen zuen. Itxita dago orain. Beste foku bat Loiolako HUA zen. Hobekuntza obra asko egin dituzte han. Eta identifikatutako hirugarren fokua Hernaniko paper-fabrika zen.

Iazko uztailan, berriz, mozioa aurkeztu genion osoko bilkurari. Gobernu Taldeak atzera bota zuen, baina, haren bidez, Donostiari eragiten zioten usain txar haien arduradun zen paper-entresaren isurketak kontrolatzeko eskatu nahi genion guk Hernaniko Udalari.

Usain txarrak ez dira bukatu, ordea. Eta usain txarren kexak izaten direnean besterik ez du jarduten Gobernu Taldeak. Esate baterako, otsailan aurkeztu genuen interpelazio bati erantzuteko, esan zigun ondo baino hobeto zekiela zer gertatu zen –beste azterlan bat egiteko eskatu baikenuen guk–, 2013ko azterlanak ondo azaltzen zuelako usain txarrak nondik zetozen, eta Eusko Jaurlaritzaren mende den gaia dela hori.

Horiek horrela direla, hauxe da PPren udal taldeak dakarren

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udaltzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio kontrolatzeko Donostiari eragiten dioten usain txarren ardura duen paper-fabrikaren isurketak.
2. Donostiako Udaltzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio beste azterlan bat egiteko oraingo usain txarrak nondik datozen jakiteko.

Donostia, 2021eko martxoaren 3a.

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea